# Tolosaldeko baliabideen gida

© Farapi, SL 2007ko abenduaren 14a

# Aurkibidea

Aurkibidea ....2
Aurkibidea ....5
Kokapen geografikoa ....6
Erroldatzea....7
Eman beharreko urratsak ....7
Nola funtzionatzen du udal batek?....8
Tolosaldeko udalen zerrenda....8
Etxebizitza....11
Aterpetxeak ....12
Ostatuak ....13
Premiazko bizitokiak....13
Alderdi juridikoak....15
Europar Batasunaz kanpoko pertsonentzako administrazio erregularizazioa16
Etorkinei alderdi juridikoetan laguntza eskaintzen dieten elkarteak ....17
Asilo politikoa eskatzeko....17
Informazio orokorra....18
Enplegua....19
Oinarrizko aholkuak: ....20
Sindikatu nagusiak:....20
Gizarte zerbitzuak ....22
Oinarrizko gizarte zerbitzuak: ....22
Gizarte zerbitzu espezifikoak: ....22
Zerbitzu komunitarioen arloan eskumenak dituzten beste erakunde batzuk.22
Osasuna....24
Osasun laguntzako txartel orokorra eta osasun txartel indibiduala (OTI) lortzeko betekizunak....24
Informazio orokorra eta eskabideak....25
Tolosaldeko Osasun Etxe Publikoak eta Kontsultategiak ....25
Arreta espezializatuko zentro publikoak....26
Osasun mentaleko zentro publikoak....26
Tolosaldeko osasun etxe pribatuak eta itunpekoak ....26
Larrialdietarako medikuak....26
Hezkuntza ....28
Eman beharreko urratsak ....28
Hizkuntza ereduak ....28
Zentro motak....28
Helduen hezkuntza (HHE) ....28

© Tolosaldea Garatzen

Informazio orokorra ........................................................................ 29
Atzerriko tituluak homologatzea eta baliozkotzea ........................................ 29
Euskara ........................................................................ 31
- Euskararen udal zerbitzuak ........................................................................ 31
Euskaltegiak ........................................................................ 32
Kultura eta astialdia ........................................................................ 34
Gazteak ........................................................................ 34
Gazte informazioko bulegoak ........................................................................ 36
Jaiak eta bestelako ekitaldi interesgarriak ........................................................................ 37
Azokak ........................................................................ 38
Bestelako kultur ekitaldi interesgarriak ........................................................................ 39
Gastronomia elkarteak ........................................................................ 39
Tolosaldeari buruzko informazio turistikoa ........................................................................ 39
Kirolak ........................................................................ 40
Informazio orokorra ........................................................................ 40
Gurtza lekuak ........................................................................ 41
Tenplu katolikoak ........................................................................ 41
Tenplu protestanteak ........................................................................ 41
Islamiar tenpluak: ........................................................................ 41
Elkarteak ........................................................................ 42
- Biztanle guztientzat interesa duten gizarte elkarteak ........................................ 42
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila Eusko Jaurlaritza ........................................ 43
- Etorkinei laguntzeko elkarteak ........................................................................ 43
- Bazterketa arriskuan dauden pertsonei laguntzeko Estatuko eta nazioarteko elkarteak ........................................................................ 44
Beste datu interesgarri batzuk ........................................................................ 46
- Non aurki dezaket Internet zerbitzu bat? ........................................................................ 46
- Nondik bidal dezaket dirua? ........................................................................ 46
- Postetxea eta telegrafetxea ........................................................................ 46
- Mintzalekuak ........................................................................ 46
- Bankuak ........................................................................ 46
- Nondik bidal ditzaket eskutitzak eta paketeak? ........................................ 47
- Postetxea eta telegrafetxea ........................................................................ 47
- Postal Expres ........................................................................ 47
-Telefono bidezko telegramak ........................................................................ 47
- Mintzalekuak ........................................................................ 47
- Mezulari zerbitzuak ........................................................................ 47
- Nola mugi naiteke eskualdean eta eskualdetik kanpo? (Mugikortasuna) ... 47
- Autobusak: ........................................................................ 47
- Trenak: ........................................................................ 48


© Tolosaldea Garatzen 

-Taxiak: ..................... 48
- Bizikleten alokairua: ..................... 48
- Non jaso dezaket kontsumitzaileen eskubideen berri? ..................... 48
- Nora deitu behar dut larrialdi kasuetan? ..................... 48

© Tolosaldea Garatzen

# Aurkibidea

Gida honen helburua eta filosofia Tolosaldeko udalerriren batean bizitzea erabakitzen duen pertsona orori informazioa eskaintzea da. Zenbait kolektiboren premiak aintzat hartuz, kolore urdinez nabarmendu dugu biztanle guztiei zuzenduriko informazioa, laranjaz emakumeei zuzendurikoa eta okrez bidaiderik gabeko adingabeei zuzendurikoa.

Tolosaldea Garatzen agentzian, kultura ezberdinak modu osasungarrian, errespetuz eta elkar onartuz bizituko diren gizarte anitza lortzen lagundu nahi dugu.

Joxe Luis Urdangarin
Tolosaldea Garatzen agentziako kudeatzailea

© Tolosaldea Garatzen

# Kokapen geografikoa

Tolosaldea Gipuzkoako ekialdean dago. Honako muga hauek ditu: ekialdean Nafarroa, iparraldean Donostialdea, hegoaldean Goierri eta mendebaldean Urola Kosta.

Tolosaldeak 45.000 biztanle inguru ditu, eta 332 $km^2$. Guztira 28 udalerri biltzen ditu: Abaltzisketa, Aduna, Albistur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

Eskualdearen ardatz nagusia Oria ibaiaren harana da; hain zuzen ere bere erdiko ibilguan dago Tolosaldea. Ardatz hori iparretik hegoaldera jarraitzen badugu, eskualdeko herrigune nagusiak aurkituko ditugu: Tolosa, Ibarra, Irura, Anoeta eta Villabona. Guztien artean, oso eremu urbanizatua osatzen dute.

Eskualdeko gainerako udalerriak Oria ibaira doazen beste ibaiadar batzuen haranetan daude (esaterako, Aiztondo bailaran, Araxes bailaran, Berastegiko bailaran edo Amezketako bailaran), edota mendi-hegal erdian, Oria ibaiaren bi aldeetara irekitzen diren ibar txikietan. Udalerri horiek, oro har, txikiagoak eta landatarrak dira.

Eskualdeko kulturaren alderdi nagusietako bat **euskara** da. Gaztelaniarekin batera, bertako hizkuntza ofiziala da. Euskara da eskualdeko biztanle askorentzat hizkuntza ohikoena, nahiz eta batzuentzat ama hizkuntza den eta beste batzuek, ordea, ikasi egin behar izan duten.

© Tolosaldea Garatzen

# Erroldatzea

Erroldatzea nahitaezkoa da udalerri batean bizi diren guztientzat. Eskubidea eta betebeharra da. Bakoitzak bizi den udalerrian eman behar ditu bere datuak (izena, abizenak eta helbide bat). Doako zerbitzua da. Agiri ofizial batekin identifikatu behar du nork bere burua; esaterako, NANarekin, gidabaimenarekin edo pasaportearekin. Erroldatzeak zenbait eskubide eta betebehar dakartza berekin. Udalerri bateko erroldan erregistraturiko pertsona guztiak bertako bizilaguntzat hartuko dira, osasun asistentzia publikoa izateko eskubidea dute, bai eta beren seme-alabei oinarrizko eskolatzea emateko eskubidea ere. Hainbat gizarte laguntza eskatzeko eskubidea ere ematen du (larrialdietarako laguntza, oinarrizko errenta, eta abar).

Europar Batasunetik kanpoko pertsonentzat, erroldan erregistratzea beren ohiko bizilekua udalerri jakin batean dutela frogatzeko modua izan daiteke. Baldintza hori nahitaezkoa da bizileku baimena lortzeko eta erregularizazio prozesuetarako.

Behin betiko egoitzarik ez duten pertsonek bi urtean behin berritu behar dute beren errolda erregistroa (berritzen ez badute, baja ematen zaie).

### Eman beharreko urratsak

Prozedura aldatu egin daiteke udal batetik bestera.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Identifikatzeko agiria: pasaportea, jatorrizko herrialdeko nortasun agiria, bizileku txartela... (nahitaezkoa)
- Bizilekua ziurtatzen duen agiria: erosketaren eskritura, alokairu kontratua, alokairu kontratuaren titularraren baimena.
- Eskatzailea ez bada etxebizitzaren erosketaren edo alokairuaren agirietan agertzen, etxebizitzaren jabearen baimen sinatua eta haren NANaren fotokopia.

© Tolosaldea Garatzen

## Nola funtzionatzen du udal batek?

Udala edo udal korporazioa, udalerri bateko administrazio organoa da.

Udalaren egitura aldatu egin daiteke udal horren tamainaren arabera. Dena den, adibide gisa, hona hemen Tolosako Udalaren organigrama.

**UDALA**

OSOKO BILKURA

Erabakitzeko ahalmena
Bilerak: hilean behin (ohikoak)
Eskatzen denean (ezohikoak)
Bilerakideak: alkatea + 16 zinegotzi

GOBERNU BATZORDEA

Erabakitzeko ahalmena
Bilerak: astean behin
Bilerakideak: alkatea + zinegotziak

INFORMAZIO BATZORDEAK

Ez dute erabakitzeko ahalmenik.
Normalean, sailekin bat etorri ohi dira: gizarte zerbitzuak, kultura eta gazteria, enplegua, ogasuna, hirigintza, euskara eta hezkuntza, obrak eta zerbitzuak, kirolak, jaiak, eta abar.

## Tolosaldeko udalen zerrenda

**ABALTZISKETA**
Telefonoa: 943 652 900
Helbidea: Hirigunea 11. 20269

**ADUNA**
Telefonoa: 943 692 571
Helbidea: Herriko plaza 1. 20150
Web orria: http://www.aduna.net/

**ALBIZTUR**
Telefonoa: 943 654 426
Helbidea: Simon Labaien enparantza. 20495
Web orria: http://www.albiztur.com

**ALEGIA**
Telefonoa: 943 653 016
Helbidea: Enparantza nagusia z.g.
Web orria: http://www.alegia.net

**ALKIZA**
Telefonoa: 943 690 235
Helbidea: Alkiza plaza 1. 20494

**ALTZO**
Telefonoa: 943 652 413
Helbidea: Altzoko enparantza z.g. 20268
Web orria: http://www.altzo.net

**AMEZKETA**
Telefonoa: 943 653 189
Helbidea: Fernando amezketarraren plaza z.g. 20268

© Tolosaldea Garatzen

**ANOETA**
Telefonoa: 943 650 353
Helbidea: Herriko plaza z.g. 20270

**ASTEASU**
Telefonoa: 943 691 907
Helbidea: Kale nagusia z.g. 20159
Web orria: http://www.asteasu.net/

**BALIARRAIN**
Telefonoa: 943 889 003
Helbidea: Baliarrain plaza z.g.
20259

**BELAUNTZA**
Telefonoa: 943 674 366
Helbidea: Hiriburu 14. 20491

**BERASTEGI**
Telefonoa: 943 683 000
Helbidea: Hirigune sakabanatua 4
Web orria: http://www.berastegi.com/

**BERROBI**
Telefonoa: 943 683 085
Helbidea: Joxe Mari Goikoetxea kalea 28. 20493
Web orria: http://www.berrobi.net/

**BIDEGOIAN**
Telefonoa: 943 681 109
Helbidea: Plaza z.g. 20496
Web orria: http://www.bidegoian.net/

**ELDUAIN**
Telefonoa: 943 683 121
Helbidea: Elduain 1. 20493
Web orria: http://www.elduain.com/

**GAZTELU**
Telefonoa: 943 675 897
Helbidea: Gaztelu 29, behea. 20491

**HERNIALDE**
Telefonoa: 943 654 494
Helbidea: Santa Kruz Apaiza enparantza 1. 20494

**IBARRA**
Telefonoa: 943 671 138
Helbidea: San Bartolome 2. 20400
Web orria: http://www.ibarrakoudala.net/

**IKAZTEGIETA**
Telefonoa: 943 653 329
Helbidea: San Lorentzo 7, behea. 20267
Web orria: http://www.ikaztegieta.net

**IRURA**
Telefonoa: 943 691 333
Helbidea: San Migel plaza 1. 20270
Web orria: http://www.irura.net/

**LARRAUL**
Telefonoa: 943 693 042
Helbidea: San Esteban plaza z.g. 20159
Web orria: http://www.larraul.com

**LEABURU**
Telefonoa: 943 675 931
Helbidea: Urrope plaza 1. 20491

**LIZARTZA**
Telefonoa: 943 670 700
Helbidea: Txirrita Gudariaren plaza z.g. 20490
Web orria: http://www.lizartza.com

**ORENDAIN**
Telefonoa: 943 654 064
Helbidea: Errosario plaza. 20269

**OREXA**
Telefonoa: 943 682 216
Helbidea: Errebote plaza 1. 20490
Web orria: http://www.orexa.net/

**TOLOSA**
Telefonoa: 943 697 500
Helbidea: Plaza Zaharra 6. 20400
Web orria: http://www.tolosakoudala.net

**VILLABONA**
Telefonoa: 943 692 100
Helbidea: Erreboteko plaza z.g. 20150
Web orria: http://www.villabona.net

**ZIZURKIL**
Telefonoa: 943 691 012
Helbidea: Aurrera plaza 3. 20159
Web orria: http://www.zizurkil.com/

© Tolosaldea Garatzen

© Tolosaldea Garatzen

# Etxebizitza

**Nola aurkitu bizitzeko lekua?**

Herritar gehienek hainbat bide erabiltzen dituzte etxebizitza bilatzeko; hala nola, prentsako iragarkiak, web orrietakoak, saltokietakoak eta leku publikoetan jarritakoak. Beste batzuek higiezin agentzietara jotzen dute. Enpresa horiek pribatuak dira, eta hortaz, dirua kobratzen dute egiten dituzten kudeaketa lanengatik.

Tolosaldeko kontsumitzailearen bulegoan (KIUB) produktuen salerosketarekin edo zerbitzuen kontratazioarekin zerikusia duten alderdiak argi diezazkizukete, baita alokairuen kontratuei buruzkoak ere.

Horretaz gain, badira baliabide publikoak ere etxebizitza bat eskuratzeko (alokatzeko zein erosteko). Eusko Jaurlaritzak Etxebide eta Alokabide zerbitzuak eskaintzen ditu, esaterako. Zenbait udalek ere laguntzen dute etxebizitza bilatzen (zure udalerriko udalean galdetu behar duzu).

Udaletako Gizarte Zerbitzuen Sailak laguntza ekonomikoak ematen ditu erroldatuta dauden (gutxienez sei hilabetez) eta diru-sarrera txikiak dituztela frogatzen duten pertsonen alokairuak ordaintzeko.

Etorkinek bertakoen baldintza beretan balia ditzakete Etxebide eta Alokabide zerbitzuak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte: 1) Adin nagusikoa izatea, edota adingabe emantzipatua 2) Euskal Herrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebetez 3) etxebizitzarik ez izatea 4) gutxieneko diru-sarrerak justifikatzea

**ETXEBIDE**
Telefonoa: 012
Web orria: www.etxebide.info

**ALOKABIDE**
Telefonoa: 902 540 520
Web orria: www.alokabide.com

Tolosan Errentegibel izeneko zerbitzu bat dago, Eusko Jaurlaritzak Alde Zaharreko etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen laguntzak kudeatzen dituena. Zerbitzu horrek bigarren eskuko etxebizitzak eta alokairu babestuak eskuratzeko laguntzak ere kudeatzen ditu.

**ERRENTEGIBEL**
Telefonoa: 943 670 892
Faxa: 943 670 623
Helbide elektronikoa: erreten@tolosakoudala.net

**KIUB (KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA)**
KIUB zerbitzua honako udalerri hauetan dago:
-Tolosa: Astelehena, asteazkena eta ostirala (Kultur etxean)
-Ibarra: Asteartea (Kultur etxean) 09:30-13:30

© Tolosaldea Garatzen 

-Villabona: Osteguna (Udaletxea) 09:30-13:30

Babesgabezian dauden eta erreferentziako pertsona heldurik ez duten adingabe atzerritarren kasuan, erakunde publikoak adingabe horiek hartzera behartuta daude. Kasu horiek Udaltzaingoari edota Ertzantzari jakinarazi behar zaizkie. Babesgabezian dauden adingabe atzerritarrentzako urgentziazko abegi-zentroa Tolosan dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpe.

**CAU**
Donostia etorbidea 5
Tolosa
Telefonoa: 943 698 908

Aldi baterako ostatua nahi izanez gero, aterpetxeetara, ostatuetara edota hoteletara jo daiteke.

**Aterpetxeak**

**ABELETXE**

Helbidea: Zarate Bidea. Zizurkil

Telefonoa: 943 693 983

**ETXALBURU**

Helbidea: San Juan plaza z.g. Abaltzisketa

Telefonoa: 943 692 900

**UZTARTZA**
Helbidea: Herriko plaza. Aduna

Telefonoa: 943 693 481

**ZARTAGI**

Helbidea: Herriko plaza. Baliarrain

Telefonoa: 943 163 076

Web orria: www.zartagi.com

**ZULOAGA TXIKI**

Helbidea: Tolosa-Anoeta errepidea

Telefonoa: 943 650 036 Faxa: 943 651 609

Hotelak edo nekazalturismoak ezagutzeko, ikusi www.tolosaldea.net web orria, edota joan zaitez Tolosaldea Tour bulegora (Santa Maria plaza 1, Tolosa).

© Tolosaldea Garatzen

## Ostatuak

**JOSE MARI OSTATUA**
Helbidea: Kale nagusia 37, Lizartza

Telefonoa: 943 682 042

**PANTXIKANE OSTATUA**

Helbidea: Herriko plaza. Zizurkil

Telefonoa: 943 691 893

**OYARBIDE OSTATUA**

Helbidea: Gorriti plaza 1. Tolosa

Telefonoa: 943 670 017

**KARMENTXU OSTATUA**

Helbidea: Correo kalea 24. Tolosa

Telefonoa: 943 673 701

Bestalde, baliabide ekonomikorik gabeko pertsonentzat aldi baterako (hiru egun edo astebete, lekuaren arabera) **premiazko bizitokiak** eskaintzen dituzten zerbitzuak ere badaude, eta zerbitzu hori baliatu nahi dutenek zenbait baldintza edo arau bete beharko dituzte.

## Premiazko bizitokiak

- Tolosaldean

**ABEGI ETXEA TOLOSA - Pasadizokoen etxea**
Helbidea: Agintari kalea 7, behea. 20400 Tolosa

- Gipuzkoan

**HARRERA SOZIALERAKO UDAL ZENTROA**
Helbidea: Mons pasealekua 3. 20015 Ategorrieta, Donostia.
Telefonoa: 943 326 480
Faxa: 943 326 481

**Ate irekien zerbitzua**
Edonork du baliabide hori erabiltzeko zerbitzua. 0 eta 0 azpiko tenperaturak egiten dituen gauetan egoten da irekita, azaroaren 15etik martxoaren 31ra arte.
San Bartolome kalexka 5. Donostia
Ordutegia: astelehenetik igandera 22:00-08:00

**NEGUKO ATERPEA**

© Tolosaldea Garatzen

Baliabide hori azaroaren 15etik martxoaren 31ra arte dago zabalik
Zorroagako antzinako haurren pabilioia (Zorroaga pasealekua z.g.), Donostia
Ordutegia: astelehenetik igandera 21:00-09:00

© Tolosaldea Garatzen

# Alderdi juridikoak

**Nola konpondu justiziarekin loturiko gaiak eta nola egin izapide administratiboak?**

Tolosak bere barruti judiziala du, eta hiru epaitegi ditu arlo zibilerako eta penalerako. Udalerri txikiek Bake Epaitegia izan ohi dute. Tolosan Erregistro Zibila ere badago; bertan, ezkontzekin, jaiotzekin, heriotzekin eta abarrekin loturiko gaiak izapida daitezke. Naziotasunaren eskaera ere bertan izapidetzen da. Epaitegiko Togen Aretoan doako laguntza juridikoa eska daiteke, baita ofiziozko abokatua ere (gai penalak, zibilak, atzerritartasunekoak, eta abar).

Etorkin atzerritarrek doako arreta, informazioa eta laguntza jasoko dute bizi diren udalerriko Gizarte Zerbitzuetan. Pertsonaren egonaldia edo egoitza kontuan izanik, HELDU zerbitzura bideratu ahal izango dira (Eusko Jaurlaritzaren mendeko EAEko Atzerritar Etorkinen Arreta Juridiko Sozialeko Sarea).

Tolosako Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia da emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko gaien eskumena. Tolosaldean bizi diren eta etxeko indarkeriaren eta/edo sexu erasoen biktima diren emakumeek hainbat laguntza jasotzeko eskubidea dute (udal bakoitzeko gizarte zerbitzuetan kontsultatu). Erasoak edo tratu txarrak salatzeko (baita psikologikoak ere), poliziarengana, epaitegira edota udaleko gizarte zerbitzuetara jo daiteke. Berehala, abokatu laguntza jasoko da, doan.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan tratu txarren eta etxeko indarkeriaren biktimentzako abokatu espezializatu bereziak daude. Zerbitzu hori eguneko 24 orduetan dago biktimen zerbitzura. Harremanetarako telefonoa: **902 103 908**

Etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktima diren Europar Batasunaz kanpoko emakumeek adierazitako zerbitzuak jasotzeko eskubidea izango dute (abokatu baten laguntza, tratu txarren biktimentzako laguntza, eta abar), haien administrazio egoera edozein izanik ere.

Babesgabezian dauden adingabe atzerritarrek doako laguntza juridikoa eska dezakete Abokatuen Elkargoko Atzerritartasun Txandan, **656 793 722** telefonora deituz, honako gai hauetarako: adina zehazteko probak, tutoretza uztea, beste errekurtso batera aldatzea, egoitza baimena, eta abar.

Atzerritar baten aldeko **gonbidapen gutuna**. 2007ko maiatzaz geroztik, izapide hori honela egiten da:

- **Lehenik,** interesdunak eskabidea bizi den tokiko Polizia Etxera bideratu behar du, horrek izango baitu adierazitako izapidea egiteko eskumena.
- **Bigarren,** eskabideak eskatzailearen datuak bildu beharko ditu, baita pertsona hori bere etxean edo beste batean (bi kasuetan, leku zehatza adierazi beharko da) hartzeko eta bertara gonbidatzeko adierazpen argia ere.
- **Hirugarren,** gonbidatzaileak etxebizitzaren erabilgarritasuna frogatuko duen dokumentazioa emango du (jabetza titulua, alokairu kontratua).
- **Laugarren,** pertsona gonbidatua zenbat denbora geratuko den adierazi beharko da eta, gutxi

© Tolosaldea Garatzen

gorabehera, herrialdean egon den lehen eguna eta azkena zehaztu beharko dira.

## Europar Batasunaz kanpoko pertsonentzako administrazio erregularizazioa

«Paperei» buruzko informazio gehiago jasotzeko, udalerri bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da, eta haiek HELDU Gizarte eta Lege Aholkularitzako Zerbitzura bideratuko dute. Zerbitzu horiek bizitzeko eta lan egiteko baimenei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen dute, bai eta izapidetu ere, bereziki espainiar Estatuan bizitzeko baimen administratiborik ez daukatenen kasuetan.
Erroldatuta ez daudenek etorkinei laguntzeko elkarteetara jo dezakete.

**HELDU**
Helbidea: Larramendi kalea 1, beheko solairua, ezkerra. 20006 Donostia
Telefonoa: 943 444 890
Faxa: 943 466 555

**TOLOSAKO EPAITEGIA**
Justizia Jauregia
San Juan kalea z.g. 20400 Tolosa
Abokatuen Elkargoko Togen Aretoa
Doako Laguntza Juridikoa eskatzeko izapideak
Zuzenbide zibilean, zigor zuzenbidean eta atzerritartasunean espezializaturiko ofiziozko abokatua.

**TOLOSAKO ERREGISTRO ZIBILA**
Helbidea: San Juan kalea z.g.
Telefonoa: 943 002 603
Naziotasun eskaerak

**TOLOSAKO NOTARIOTZA (erakunde pribatua)**
Helbidea: San Frantzisko ibiltokia 17. 20400 Tolosa
Telefonoa: 943 650 909
Zerbitzuak: adingabeentzako bidaiatzeko baimenak, familia berriz batzeko baimenak, bisatuetarako eta botereetarako baimenak.

**HERRITARRARENTZAKO INFORMAZIO JURIDIKOKO BULEGOA**
Helbidea: Kalkutako Teresa plaza 1. 20012 Donostia
Telefonoa: 943 000 700

**ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA**
Helbidea: Kalkutako Teresa plaza 1. 20012 Donostia
Telefonoa: 943 004 356
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00
Astearteetan eta asteazkenetan 16:00-19:00
Doako justizia

**ABOKATUEN ELKARGOA**
Hondarribia kalea 1, 2.
20005 Donostia
Telefonoa: 943 440 118
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:00-13:30 eta 16:00-18:30
Web orria: www.icagi.net

© Tolosaldea Garatzen

**POLIZIA NAZIONALAREN ATZERRITARREN BULEGOA**
Helbidea: Jose Maria Salaberria kalea 16. 20010 Donostia
Telefonoa: 943 449 810
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00
Araubide orokorreko bizileku baimena, ez lan baimena.
Behin betiko bizileku eta lan baimenak.
Atzerritar txartela.
Ikasle txartela.
Araubide komunitarioko txartela.
Atzerritarren identifikazio zenbakia
Itzultzeko baimena
Bisatuaren luzapena

**ENPLEGU, GIZARTE SEGURANTZA ETA GIZARTE GAIEN BULEGOA ATZERRITARREN BULEGOA**
Helbidea: Podabines 1-3
Telefonoa: 943 483 600
Araubide orokorreko lan edo bizitoki baimena eskatzea, izapidetzea eta berritzea. Lan baimenak.

**JAURLARITZAREN GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA**
Helbidea: Pio XII.aren plaza 6.
Telefonoak: 943 989 000 / 250/ 251
Familia berriz biltzeko baimenak

## Etorkinei alderdi juridikoetan laguntza eskaintzen dieten elkarteak

**CÁRITAS, ETORKINEI LAGUNTZEKO ZENTROA**
Intxaurrondo kalea 30. 20015 Donostia
Telefonoa: 943 291 040
Ordutegia: 09:00-13:00 / 14:00-17:00

**SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA**
DONOSTIA
Helbidea: Zarategi pasealekua 100, sotoa (Txara I eraikina)
Telefonoak: 943 245 626/27
Ordutegia: Astearteetan eta ostegunetan 16:30-20:00

Tolosa
Helbidea: Larramendi kalea 9. 20400 Tolosa
Telefonoa: 943 249 036
Helbide elektronikoa: sostolosa@gmail.com
Ordutegia: Asteazkenetan 11:00-13:00 eta 18:30-21:30. Ostiraletan 11:00-13:00 eta 15:30-17:30
Ordutegi horretatik kanpo, telefono zenbaki hauetan eskainiko dizute arreta: 943 245 626 (Donostiako bulegoa) edota 658 749 456

## Asilo politikoa eskatzeko

**GURUTZE GORRIA**
Etorkinei laguntzeko zentroa: Zarategi pasealekua 72, behea. 20015 Donostia.
Telefonoa: 943 327 795
Web orria: www.cruzroja.es
Helbide elektronikoa: ellulo@cruzroja.es
Ordutegia: 09:00-13:30

**ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO ESPAINIAKO BATZORDEA**

© Tolosaldea Garatzen

Cristo kalea 9.B, 5. 48007 Bilbo.
Telefonoa: 944 248 844
Faxa: 944 245 938
Web orria: www.cear.es
Helbide elektronikoa: volunteusk@cear.es

## Informazio orokorra

**ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA**
Web orria: www.mir.es/SAGACAVT/extranje/
Atzerritartasun arloan indarrean dauden irizpideak

**ESPAINIAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MINISTERIOA**
Web orria: www.map.es/servicios/servicios_on_lin/extranjeria.html
Lan eta bizileku baimenak berritzea.
Espedienteen izapidearen egoerari buruzko informazioa.

**KANPO ARAZOETAKO MINISTERIOA**
Web orria: www.mae.es
Enbaxadei eta kontsulatuei buruzko informazioa.

© Tolosaldea Garatzen

# Enplegua

**Nola bilatu lana?**

Biztanle gehienek hainbat bide erabiltzen dituzte lana bilatzeko; alde batetik, prentsako, web orrietako, saltokietako eta lokal publikoetako iragarkiak, eta bestalde erakunde publikoetara jotzen dute, hala nola LANBIDEra (Tolosaldea Garatzen agentziaren bulegoetan) eta EINera.

Enpleguko Institutu Nazionala (EIN) eta Euskal Enplegu Zerbitzua (LANBIDE) enplegua bilatzen laguntzen duten bi erakunde publiko dira. EINen izena emateko, lan baimena behar da. LANBIDEn, lan baimenik izan gabe jaso daitezke prestakuntza zerbitzuak, baina ezin da lan poltsan sartu. Horretaz gain, aholkularitza, langabetuentzako eta landunentzako ikastaroak eta beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dira.

Lan baimena duten Europar Batasunaz kanpoko pertsonek euren edota besteren kontura lan egiteko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzetan. Era berean, administrazio publikoetan lan egin ahal izango dute (ez funtzionario gisa); hortaz, egiten diren enplegu eskaintza publikoaren deialdietara aurkeztu ahal izango dira.

Bestalde, Tolosaldea Garatzen agentziak (Lanbideren Zentro Lankidea) ere enpleguarekin loturiko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: Enplegu Zentroa eta Autoenplegu Zerbitzua.

ENPLEGU ZENTROA:
Eskaintzen dituen zerbitzuak:
- Zalantzak argitzea, informazioa eta aholkularitza pertsonala
- Lan eskaintzei buruzko informazioa
- Prestakuntza eta lan eskaintzetan izen ematea
- Posta elektroniko bidez, prestakuntzarekin eta enpleguarekin loturiko edozeri buruzko kontsulak.
- Hautaketa prozesuak prestatzea

Horretarako, enplegu zentroak honako baliabide hauek ditu:
- 3 ordenagailu eta inprimagailua
- Autoprestakuntzako CD-ROMak
- Enplegu eta autoenplegu kanal espezifikoei buruzko bibliografia espezifikoa
- Euskal Herriko lan merkatuari buruzko prentsa
- Estatuko iganderokoak eta aldizkari espezializatuak
- Aldizkari ofizialak

AUTOENPLEGU ZERBITZUA
Eskaintzen dituen zerbitzuak:
- Prestakuntza enpresa kudeaketaren arloan
- Enpresen jarraipena
- Laguntzei, diru-laguntzei eta finantzaketei buruzko informazioa
- Enpresen zentroa

**TOLOSALDEA GARATZEN**
**Lanbide**
Helbide elektronikoa: lan@tolosaldea.net
**Autoenplegua**
ekin@tolosaldea.net
**Enpresei eskainitako zerbitzuak**
empresa@tolosaldea.net
Helbidea: San Esteban 20. 20400 Tolosa

Telefonoa: 943 654 501

**ENPLEGUKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN)**
Helbidea: Larramendi 3-B. 20400 Tolosa
Telefonoa: 943 672 577

Bestalde, aldi baterako laneko enpresetara (ABLE) ere jo daiteke. Enpresa horiek pribatuak dira eta beren zeregina beraiek kontrataturiko langileak, aldi baterako, beste enpresa batzuen esku (enpresa erabiltzaileen) jartzea da. Tolosaldean horrelakorik ez dagoen arren, inguruko zenbait udalerritan (Beasain, Zumarraga, Donostia, eta abar) badago ABLErik.

Langile guztiek ezagutu behar dituzte beren eskubideak eta erantzukizunak. Horretarako, sindikatuetara jo dezakete. Horietako batzuek laguntza espezializatua eskaintzen diete atzerriko langileei.

**Oinarrizko aholkuak:**

- Informa zaitez Langileen Estatutuari buruz.
- Informa zaitez sektorearen eta/edo enpresaren hitzarmen kolektiboari buruz, dokumentu horrek biltzen baititu zure lanpostuaren lan baldintzak.
- Eskatu beti zure kontratuaren eta lan egindako hilabeteen nominen kopia.
- Jo ezazu sindikatu batengana lanarekin eta zure eskubideekin loturiko edozer gairen inguruan galdetzeko.

**Sindikatu nagusiak:**

- Orokorrak:

**COMISIONES OBRERAS (CCOO)**
Helbidea: Errementariak 1, bis
Telefonoa: 943 671 595
Helbide elektronikoa: tolosa@euskadi.ccoo.es

**EUSKO LANGILEEN ALKARTASUNA-SOLIDARIDAD VASCA DE TRABAJADORES (ELA-STV)**
Helbidea: San Frantzisko ibiltokia 13. 20400 Tolosa
Telefonoa: 943 698 314

**LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEA (LAB)**
Helbidea: Gorosabel pasealekua 9. 20400 Tolosa
Telefonoa: 943 670 026
Helbide elektronikoa: tolosa@labsindikatua.org

**UNIÓN GENERAL DE TRABAJADORES (UGT)**
Helbidea: Katalina Erauso 7 eta 9, behea. 20010 Donostia
Telefonoa: 943 445 874
Helbide elektronikoa: ugtdonostia@ugteuskadi.org

- Landa eremuko langileen sindikatuak:

© Tolosaldea Garatzen

| |
|---|
| **EHNE**<br>Helbidea: Nafarroa etorbidea 6-2. 20400 Tolosa<br>Telefonoa: 943 654 281<br>Helbide elektronikoa: enhe@enheg.net |

| |
|---|
| **ENBA**<br>Helbidea: Andia kalea 7. 20400 Tolosa<br>Telefonoa: 943 650 123 |

- Etxeko langileen elkarteak

| |
|---|
| **Asociación de Trabajadoras del Hogar / Etxe Langileen Elkartea (ATH-ELE)**<br>Helbidea: Pilota kalea 3. 48003 Bilbo<br>Telefonoa: 944 155 483<br>Ordutegia: Astelehenetan 18:00-20:00<br>Web orria: http://www.ath-ele.com/<br>Helbide elektronikoa: ath-ele@hotmail.com |

© Tolosaldea Garatzen

# Gizarte zerbitzuak

Gizarte zerbitzuak, normalean, udaletan eta mankomunitateetan egon ohi dira, eta horietan zailtasun pertsonalak edota familiarrak dituzten guztiei laguntza eskaintzen zaie. Informazioa, orientazioa edo laguntza eskaintzen dute. Tolosaldeko udalerri bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzeko egokiena, hitzordua eskatzea edo telefonoz dagokion udalera deitzea da[1] (Ikus udalak 3-5 orrietan).

Atzerritar guztiek, haien lege egoera edozein izanik ere, Gizarte Zerbitzuen Zentroetan laguntza eta informazioa jasotzeko eskubidea dute. Legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek oinarrizko gizarte prestazioak baliatu ahal izango dituzte. Gizarte zerbitzuek errotzeari buruzko txostenak prestatzen dituzte, baita familia berriz batzeko etxebizitzen egokitasunari buruzko txostenak ere.

### Oinarrizko gizarte zerbitzuak:

**- Informazio, balorazio eta orientazio zerbitzuak:** Informazioa eta laguntza pertsonalizatua, gizarte premien arabera.

- **Gizarte bazterketaren aurkako zerbitzua:** Hainbat laguntza mota daude, egoera pertsonalaren eta gizarte egoeraren arabera. Oinarrizko errenta; gizarte larrialdiko laguntza; gizarteratzeko laguntza bereziak.

- **Adineko pertsonak edo ezinduak dituzten familientzako laguntzak:** Etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak, tele-alarmak, adinekoentzako egoitzak, kotizatu ez dutenentzako laguntzak.

### Gizarte zerbitzu espezifikoak:

- **Gizarte hezkuntzako esku-hartzeen programak**, hainbat arazo edo gizarte premiak eragindako harreman eta elkarbizitza zailtasunak dituzten familiekin**.**
- **Esku-hartze programa**, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin.
- **Emakumeentzako aholkularitza:** Informazio pertsonalizatua eta ahokularitza eskaintzen dizkiete tratu txarrak eta genero indarkeria jasan duten emakumeei.
- **Aholkularitza psikologikoa:** Laguntza psikologikoa ematen diete tratu txarrak eta genero indarkeria jasan duten pertsonei, baita eskatzen duten erasotzaileei ere.
- **Drogamendekotasunak prebenitzeko zerbitzua:** Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programak.
- **Gizarteratzeko zerbitzua:** Gizarte bazterketa gainditzeko laguntza programak eta prestakuntza zein enplegua sustatzekoak.
- **Osasun hezkuntzako programak**

### Zerbitzu komunitarioen arloan eskumenak dituzten beste erakunde batzuk

- Gizarte Politikako Departamentua. Haurren eta Gazteen Zuzendaritza. Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua. Gaztegune. Anoeta pasealekua 28 (Txuri Urdin). 20014 Donostia. Telefonoa: 943 472 580
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Saila. Zarategi pasealekua 99 (Txara II eraikina). 20015 Donostia. Telefonoa: 943 482 500
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.Andia kalea 13. 20004

[1] Udalerri bakoitzaren tamainaren eta baliabideen arabera, zerbitzu gehiago edo gutxiago eskainiko dira.

© Tolosaldea Garatzen

Donostia. Telefonoa: 943 022 810

**GIZARGI (Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua)**
Donostian kokaturiko gizarte larrialdietarako zerbitzua da, honako pertsona hauei zuzendua:
- Tratu txarrak edota edonolako erasoak jasan dituztenei.
- Une jakin batean baliabiderik gabe gelditu direnei edota beren familiek bakarrik utzi dituztenei.
- Osasun arrazoiak direla-eta larritasuneko une batean gizarte zerbitzuen babesa behar dutenei.

Telefonoa: 943 224 411
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 15:00-22:00 Asteburuetan: 08:00-22:00

© Tolosaldea Garatzen

# Osasuna

Udal batean erroldaturiko pertsona guztiek Osakidetzako osasun zerbitzuak baliatzeko eskubidea dute, betiere udalerri bakoitzeko osasun etxeetan eskatu beharreko osasun txartela badaukate. Erroldaturik ez dauden pertsonek, ordea, medikuaren alta jaso arte bakarrik izango dute osasun laguntza jasotzeko eskubidea.

Pertsona atzerritarren artean, 18 urtetik beherakoek eta haurdun dauden emakumeek bi talde berezi osatzen dituzte.

Adingabeek osasun laguntza Espainiako naziotasuna dutenen baldintza beretan jasotzeko eskubidea izango dute.

Haurdun dauden emakume guztiek, bizileku baimena izan edo ez izan, haurdunaldian, erditzean eta erditu ondoko aldian osasun laguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

**Osasun laguntzako txartel orokorra eta osasun txartel indibiduala (OTI) lortzeko betekizunak**

- Osasun laguntzako txartel orokorra (langileak ez direnentzat)
    - Betekizunak:
        - Nortasun agiriren baten fotokopia (NAN, AIZ edo pasaportea)
        - Erroldaren ziurtagiria
        - Gizarte Segurantzan bajan egotearen ziurtagiria
        - Gipuzkoako Foru Ogasunaren ondasunen ziurtagiria
        - Aurreko urtean errenta aitorpena ez aurkeztu izanaren ziurtagiria edo, aurkeztu bada, haren kopia
        - Familia liburuaren edo jaiotza agiriren fotokopia [adingabeentzat bakarrik].
- Osasun txartel indibiduala (langileentzat)
    - Betekizunak:
        - Nortasun agiriren baten fotokopia (NAN, AIZ edo pasaportea).
        - Erroldaren ziurtagiria
        - Gizarte Segurantzan altan egotearen fotokopia (txartelaren titularrarena)
        - Familia liburuaren edota jaiotza agiriaren fotokopia [txartela nahi duen pertsonak hura familiako kide baten bitartez eskuratzeko eskubidea duenean].

Osasun sare publikoaz gain, badaude zentro pribatuak ere. Horiek orokorrean ez dira doakoak izaten, hara bideratu duena osasun zerbitzu publikoa denean salbu (Euskal Herriaren kasuan, Osakidetza).

Sendagaiak farmazietan erosten dira, eta gehienak eskuratzeko errezetak behar dira[2]. Errezeta horiek Osakidetzak edo osasun etxe pribatuetako langileek ematen dituzte.

Buru arazoak edo eritasunak dituztenek familia medikurengana jo behar dute lehenik eta

[2] OTI txartela dutenek % 20ko deskontua izaten dute sendagaien prezioan, Osakidetzak eginiko errezetei esker. Gainerakoek zenbateko osoa ordaindu beharko dute.
Farmazien zerrenda honako web orri honetan kontsulta daiteke: http://www.osanet.euskadi.net/r85-20411/es/contenidos/informacion/listado_farmacias/es_7909/farmacias_gipuzkoa.html

© Tolosaldea Garatzen

behin, eta hark Osasun Mentaleko dagokion zerbitzuetara bideratuko du.

**944 100 000** telefonoan **osasun larrialdietarako** laguntza eskaintzen dute eguneko 24 orduetan.

### Informazio orokorra eta eskabideak

- Euskal Osasun Zerbitzuaren (OSAKIDETZA)

Lurralde Zuzendaritza: Antso Jakitunaren hiribidea 35. 20010 Donostia
Telefonoa: 943 023 018
Web orria: www.osakidetza-svs.org
Ordutegia: 09:00-13:30 / 13:00-17:00

### Tolosaldeko Osasun Etxe Publikoak eta Kontsultategiak

**ALEGIKO OSASUN ETXEA**
Helbidea: Bidebarrieta 17. 20260
Telefonoa: 943 653 212
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Laguntza administratiboa
- Medikuntza orokorra
- Pediatria
- Erizaintza
- Emagina

**AMAROTZEKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Amarotz auzoa, Tolosa
Telefonoa: 943 006 800
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**AMEZKETAKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: San Bartolome 27. 20269
Telefonoa: 943 655 320
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**ANOETAKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Solkorre kalea z.g. 20270
Telefonoa: 943 652 339
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Laguntza administratiboa
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**ASTEASUKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Lege Zaharraren enparantza z.g. 20159
Telefonoa: 943 692 423
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**BERASTEGIKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Eliz bidea z.g. 20492
Telefonoa: 943 683 361
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**BIDEGOIANGO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Agerre-azpi 17, behea. 20496
Telefonoa: 943 681 134
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**IBARRAKO OSASUN ETXEA**
Helbidea: Euskal Herria kalea 14. 20400
Telefonoa: 943 672 411
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Laguntza administratiboa
- Medikuntza orokorra
- Pediatria
- Erizaintza
- Emagina
- Errehabilitazioa

**IRURAKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Mikel Donearen plaza 4. 20270
Telefonoa: 943 690 720
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra

© Tolosaldea Garatzen

- Erizaintza

**LIZARTZAKO KONTSULTATEGIA**
Helbidea: Soro plaza 1. 20490
Telefonoa: 943 682 077
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Medikuntza orokorra
- Erizaintza

**TOLOSAKO OSASUN ETXEA**
Helbidea: San Esteban z.g. 20400
Telefonoa: 943 006 800
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Laguntza administratiboa
- Medikuntza orokorra
- Pediatria
- Erizaintza
- Emagina
- Larrialdiak

**VILLABONAKO OSASUN ETXEA**
Helbidea: Erniobidea 2. 20150
Telefonoa: 943 006 970
**Eskainitako zerbitzuak:**
- Laguntza administratiboa
- Medikuntza orokorra
- Pediatria
- Erizaintza
- Emagina
- Ginekologia

## Arreta espezializatuko zentro publikoak
(Aurretik osasun etxera joan behar da):

**DONOSTIAKO OSPITALEA**
Akutuentzako ospitalea. Ospitale orokorra. Egonaldi ertain eta luzeko ospitalea.
Helbidea: Dr. Begiristain pasealekua z.g. 20014 Donostia
Telefonoa: 943 007 000
Web orria: www.hospitaldonostia.org

**ZUMARRAGAKO OSPITALEA**
Akutuentzako ospitalea. Eskualdeko ospitalea.
Helbidea: Argixao auzoa z.g. 20700
Telefonoa: 943 035 000
Web orria: www.hospitalzumarraga.org

## Osasun mentaleko zentro publikoak
(Aurretik familia medikuarengana joan behar da)

**ANDOAINGO OSASUN MENTALEKO ZENTROA**
Helbidea: Ricardo Arregi z.g. 20149 Andoain
Zerbitzuak eta Programak:
- Orokorra
- Haur eta Gazteentzako
- Toxikoentzako
- Alkohola

**ZUMARRAGAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROA**
Helbidea: Ciudad Jardín 20. 20700 Zumarraga
Zerbitzuak eta programak:
- Orokorra
- Haurrentzat eta gazteentzat
- Toxikoentzat
- Alkohola

## Tolosaldeko osasun etxe pribatuak eta itunpekoak

**ASUNCIÓN KLINIKA**
Helbidea: Izaskun bidea 9. 20400
Telefonoa: 943 697 000

## Larrialdietarako medikuak

- Abaltzisketa: 943 653 212
- Aduna: 943 006 970
- Albiztur: 943 653 212
- Alegia: 943 653 212
- Alkiza: 943 652 339

© Tolosaldea Garatzen

- Altzo: 943 653 212
- Amezketa: 943 653 212
- Anoeta: 943 652 339
- Asteasu: 943 006 970
- Baliarrain: 943 653 212
- Belauntza: 943 650 931
- Berastegi: 943 683 361
- Berrobi: 943 650 931
- Bidegoian: 943 681 134
- Elduain: 943 683 361
- Gaztelu: 943 650 931
- Hernialde: 943 650 931

- Ibarra: 943 650 931
- Ikaztegieta: 943 653 212
- Irura: 943 650 931
- Larraul: 943 006 970
- Leaburu-Txarama: 943 650 931
- Lizartza: 943 682 077
- Orendain: 943 653 212
- Orexa: 943 682 077
- Tolosa: 943 650 931
- Villabona-Amasa: 943 006 970
- Zizurkil: 943 006 970

© Tolosaldea Garatzen

# Hezkuntza

